



Matematikak

Oinarrizkoak
bideoz

Erdibitzaileen eraikitzea

METODO TRIBEKA

BIDEOAREN TRANSKRIPZIOA

Argi

Bideo honetan,
ikusiko dugu segmentu baten erdibitzailea nola eraiki.

Zehatz

Definizioaren arabera, segmentu baten erdibitzailea hau da:

- Segmentuaren erdigunetik pasatuko den
- eta segmentuaren perpendikularra den zuzena.

Argi

Hori da, baina aldi honetan ez dugu definizioa erabiliko.
Lehen bideoan aipatu dugun bezala, erdibitzailearen propietate berezia erabiliko dugu.

Zehatz

Bai, propietateaz oroit naiz :
segmentu baten erdibitzailea haren muturretatik distantziakide diren puntuen multzoa da.
Zuzen bat da, beraz, arkatza, konpasa eta erregela erabiliko ditut.

Argi

Alabaina. Eta ikusten duzun bezala, hiru egoera desberdinetan eraikiko dituzu erdibitzaileak :

- eraikitzeke leku bera delarik segmentuaren bi aldeetan, [SG] segmentuaren kasuan
- eraikitzeke leku gehiago badelarik segmentuaren alde batean bestean baino, [MN] segmentuaren kasuan eta
- eraikitzeke lekua segmentuaren alde bakar batean baizik ez delarik, [TU] segmentuarenean...

Zehatz

[SG] segmentuaren erdibitzailea eraikitzen hasten naiz.

Argi

Hasi baino lehen, jakin behar litzateke nontsu izanen den marraztu nahi duzun zuzena zirkulu-arkuen mugen aurreikusteko.

Zehatz

Ados, guti gorabehera hor izanen da beraz orain konpasaren irekidura...

Argi

...segmentuaren luzeraren erdia baino handiagoa izan behar da.

Zehatz

Punta S eta G muturretan ezarriz, bi zirkulu-arku handi marrazten ahal ditut.
Guti gorabehera [SG] segmentuarekiko simetrikoak dira.

Argi

Hori bera.

Zehatz

Eta bi ebaki-puntu horietatik pasatzen den zuzena marraztuz, erdibitzailea kausitzen dugu !

Argi

Bikain! Orokorki geometrian eraikuntzaren aztarnek, kasu honetan, bi zirkulu-arkuek, erakusten dute zer metodo erabili den. Gero, ez ahantz kodetzea!

Zehatz

Orain, [MN] segmentuaren erdibitzailearekin segituko dut.
Guti gorabehera hor izanen da. Konpasa irekitzen dut...

Argi

... MN luzeraren erdia baino handiagoa den luzera batez...

Zehatz

... M eta N muturretatik bi arku ttipi marrazten ditut.
Baina ezin dut ber irekidura erabili segmentuaren beste aldean ...

Argi

Beharrik beste irekidura bat erabil dezakezu, adibidez ttipiagoa kasu honetan!

Zehatz

Egina!
Horrela, bigarren zirkulu-arkuak marrazten ahal ditut, bigarren erdibitzaileko puntuaren kausitzeko.

Argi

Hori bera, eta bi puntu horiek lotuz, [MN] segmentuaren erdibitzailea aise marrazten duzu, kodetzea ahanzi gabe.

Zehatz

Kasik bukatua dut...

... falta zaigu oraino [TU] segmentuaren erdibitzailearen eraikitzea...

... hor izanen da, guti gorabehera.

Konpasa irekitzen dut...

Argi

... TU luzeraren erdia baino handiagoa den luzera batez...

Zehatz

... T eta U muturretatik bi arku ttipi marrazten ditut.

Baina segmentuaren beste aldean tokirik ez dut bigarren puntu baten eraikitzeko...

Argi

Beharrik ez direla bortxaz segmentuaren bi aldeetan kokatuak izan behar...

Zehatz

Arrazoi duzu, beraz konpasaren irekidura handiagoari esker, adibidez, erdibitzailearen bigarren puntua eraiki dezaket.

Argi

Bi puntu horietatik pasatzen den zuzena [TU] segmentuaren erdibitzailea da...

Zehatz

... eta kode marken egitea ez dut ahanzten: angelu zuzena eta luzera bereko bi segmentuak!

Argi

Bikain!

Zuen aldi da orain!